

OGP EUSKADI 2018-2020 PLANEAN HAUTATUTAKO PROIEKTU PILOTOAK

2019ko PILOTOAK

AURREKONTU IREKIAK

<i>Lidergoa</i>	Gipuzkoako Foru Aldundia
<i>Parte-hartze zuzena:</i>	Amurrioko Udala, Donostiako Udala, Mungiako Udala, Oñatiko Udala eta Santurtziko Udala
<i>Laguntzailea</i>	S&F

Pilotoaren helburuak: Aurrekontua parte-hartzaileak (tokikoak) diseinatzeko eta gauzatzeko Euskadiko zenbait udalek erabiltzen dituzten ereduak modu parte-hartzailean aztertzea eta ebaluatzea, EAEko beste udalerrri batzuetara transferi daitezkeen ikaskuntzak eta elementuak ateratzeko. Honako hauetan arreta jarrita: 1/aurrekontu parte-hartzaileen potentziala eta benetako ekarpena, parte hartzeko gaitasun handiagoak sortuko dituen tresna gisa – Herritarren aktibazioa 2/Konfiantza eta hizkuntza komuna sortzea – Prozesuen mugak hobeto ezagutzeko, komunikatzeko eta hizkuntza egokitzeko estrategia, adostasunak eraikitzea ... 3/Aldaketa instituzionala ... – Inpaktua prozesu parte-hartzaileen emaitzen eraginkortasunaren edo kudeaketa publiko hobearren ikuspegitik.

Transferentzia elementuak: 1) Aurrekontu parte-hartzaileen tresna hobetzeko transferentzia-elementuak identifikatzea, lehen deskribatutako irizpideen arabera kategorizatuta – Zer transferitu 2) Transferentzia-mekanismoak identifikatzea – Nola transferitu 3) Aztertutako kasuen eraginari buruzko txostena. Txosten bateratuta izango da, ez da eredu bakoitzari buruzko txostenik egingo 4) Partaidetzazko ebaluazio-prozesuaren kontaketa – komunikaziorako edukiak 5) Herritarren ebaluazioa

PROZESU PARTE-HARTZAILEEN AHALMEN SALUTOGENIKOA

<i>Lidergoa</i>	Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila
<i>Parte – hartze zuzena</i>	Hernaniko Udala eta Bilboko ICI proiektua (Gazteleku, Bilboko Udaleko Osasun eta Inmigrazio sailak, La Caixa Fundazioa)
<i>Laguntzailea</i>	Solasgune

Pilotoaren helburuak: Parte-hartze prozesuetan komunitateen osasun pertsonala eta kolektiboa sortzeko baldintzak garatuko dituen lan-eredu bat sustatzea, ikuspegi honen berri emateko eta prozesu berriak aktibatze balioko duena. Horretarako, udalerrri batean esku-hartze komunitario bat garatzea proposatzen da (talde sustatzailea, osasun-aktiboaren mapaketa, herritarren gaitasunak aktibatzea, partekatutako proiektuak identifikatzea ...) eta partaidetza-prozesuaren herritarren ebaluaziorako tresna bat garatzea (kontua - ematean oinarrituta). Eredu horren ondorioek, dagoeneko osasuna sortzen duen prozesu komunitario bat garatu duen udalerrri baten esperientzia eta transferentziarekin batera, prozesu parte-hartzaile batek (jatorrian osasun-ikuspegia izan edo ez izan) komunitatean eta pertsonengan ongizatea eta osasuna sortzeko bete beharreko baldintzak eta jarraibideak zehaztu eta egituratuko ditu.

Transferentzia elementuak: 1) Parte-hartze prozesuetan osasuna sortzea ahalbidetzen duten irizpide/jarraibideen eskuliburua 2) osasun-aktibo komunitarioen mapaketa eta proiektu kolektiboaren diseinua 3) herritarren ebaluaziorako tresna